

INAUTERIETAKO ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Andoaingo Udaleko Kultura Batzordeak argazki lehiaketa deitzen du 2021. urteko inauterietako kartel iragarlea eta programaren azala osatzeko.
2. Lehiaketa herri mailakoa da eta horretan parte hartu ahal izango dute 14 urtetik gorako pertsonak, Andoaingen bizi, ikasi ala lan eginez gero.
3. **Gaia Andoaingo Inauteriak** izango da, eta edukiari eta ideari dagokienez, lanek jatorrizkoak izan beharko dute.
4. Argazkiak Andoaingo inauterietan ateratakoak behar dute izan **eta ez dute pertsonen aurkako edozein eratako errespetu falta erakusten duten jarrerarik aurkeztuko.**
5. Lanak bi modutan aurkez daitezke, **paperean edo formato digitalean**. Argazkiak oinarrizko prozesaketa zein prozesaketa garatuaren bidez (zonen bidezko prozesaketa, adibidez) eralda daitezke.
6. Paperean **aurkezten** diren lanak **BASTERO KULTURGUNEAN** aurkeztuko dira **2020ko martxoaren 12an**, osteguna, goizeko 10:30etatik 13:00etara edota arratsaldeko 16:30etatik 19:30etara. Lanekin batera gutun-azal itxi bat ere aurkeztuko da, barruan egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa idatzi beharko direlarik. Gutun-azalaren kanpoaldean zein argazkien atzealdean, lema edo izenburua baino ez da idatziko.
7. **Formato digitalean aurkezten badira** berriz, posta eletroniko honetara bidali beharko dira **kultura@andoain.eus 2020ko martxoaren 12an, osteguna**. Posta elektronikoz aurkezten diren lanen kasuan, dokumentu aparte bat erantsiko da non lema edo izenburua jarriko diren eta egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa ere idatziko dira. Artxiboak 8MG baino txikiagoak izango dira.
8. Partaide bakoitzak, gehienez ere, 4 aurkeztu ahal izango ditu, txuri-beltzean ala koloretan.
9. Epaimahaia Kultura Batzordeko kide batek eta bi artistek, kritikari edo profesionalak, osatuko dute, eta bere erabakia apelaezina izango da. Erabakia prentsaren bidez ezagutaraziko da, baita sariak banatzeko eguna eta ordua ere.
10. Epaimahaiaren iritziz ezaugarriak egokienak dituen lanarentzat **250 euroko** sari bakarra ezarri da. Dena den, Epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako lanen artean ez badago bakar bat ere saria jasotzeko adinako kalitate daukanik, lehiaketa hutsik utzi ahal izango du.
11. Saritutako lana Andoaingo Udalaren jabetzapean geratuko da eta nahi hainbat erreprodukzio egiteko eskubidea izango du, kasu horietan autoreek ez dute inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango, eta jadanik eskuratutako sariaren zenbatekoaz gain beste diru-kopururik ere ezingo dute jaso. Erreprodukzio horiek egoki deritzon publizitate lanetan erabiltzeko ahalmena izango du udalak eta dagokion euskarrian argitaratzeko diseinu aldetik beharrezkoak ikusten diren egokitzapenak egiteko eskubidea ere izango du.
12. Saritu gabeko argazkiak jasotzeko eguna (paperean aurkeztu diren kasuetan): **apirilak 6**, astelehena, goizeko 10:30etatik 13:00etara edota arratsaldeko 16:30etatik 19:30etara. Behin epe hori iragan ondoren, autoreek obrak berreskuratzeari uko egin diotela ulertuko da eta, ondorioz, batzordea bilakatuko da berauen jabe. Egun horietatik aurrera interesdunek ez dute inolako erreklamaziorik aurkezteko aukerarik izango ez eta inolako kalte-ordainik eskatzeko aukerarik ere.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatzen du.

Andoaing, 2020ko urtarrila.

KULTURA BATZORDEA

